

BIZKAITAR ENTZUTETSUEN GALERIA  
GALERIA DE CELEBRIDADES BIZKAINAS

# PERTSONAIA HERRIKOIAK TIPOS POPULARES



**BIZKAITAR ENTZUTETSUEN GALERIA**  
GALERIA DE CELEBRIDADES BIZKAINAS

# **PERTSONAIA HERRIKOIAK** TIPOS POPULARES

**Marian Alvarez**



BILBAO 2012

BURUTZAPENA, TAIUKETA ETA MAKETAGINTZA  
REALIZACIÓN, DISEÑO Y MAQUETACIÓN:  
Comunicación Gráfica

TESTUAK / TEXTOS:  
Autoreak / Autores

ITZULPENAK / TRADUCCIONES:  
Labayru Ikastegia

ARGAZKIAK / FOTOGRAFÍAS:  
Santiago Yaniz

IRUDIEN DIGITALIZAZIOA / DIGITALIZACIÓN DE IMÁGENES:  
Ziortza San Pedro

Copy. EUSKAL MUSEOA • BILBAO • MUSEO VASCO

© Bilboko Euskal Museoa da eskubide guztien jabe. Beraz, horren aldezaurreko eta idatzizko baimenik gabe ezin da argitalpen honen osoko zein zatikako aldakirik atera, ez mekanikazko, fotokimikazko, elektronikazko, iman-bidezko, eletra-optikazko, argazki-aldakizko ez beste inolako eratako irudigintza-modutan eraso edo zabaldu.

Todos los derechos reservados. Esta publicación no puede ser reproducida, ni en todo ni en parte, ni registrada en, o transmitida por, un sistema de reproducción de información, en ninguna forma ni por ningún medio, sea mecánico, fotoquímico, electrónico, magnético, electroóptico, por fotocopia, o cualquier otro, sin el permiso previo por escrito del Museo Vasco de Bilbao.

# AURKIBIDEA

## INDICE

|                                       |    |                                       |
|---------------------------------------|----|---------------------------------------|
| UUU                                   | 7  | UUU                                   |
| CHATA MOZKORRA                        | 8  | CHATA LA BORRACHA                     |
| COLLIN                                | 9  | COLLIN                                |
| CHOLOPOCHOLO                          | 10 | CHOLOPOCHOLO                          |
| JULIAN BEGIBAKARRA                    | 11 | JULIAN EL TUERTO                      |
| JHOSE MARI                            | 12 | JHOSE MARI                            |
| KLARINETEDUNA                         | 13 | EL TIO DEL CLARINETE                  |
| PERICO, MOKORDO-ZAINDARIA             | 14 | PERICO EL GUARDAMOCORDOS              |
| PITOLERDO MAISUA                      | 15 | EL MAESTRO PITOLERDO                  |
| CUCHILLITO ETA NAVAJITA               | 16 | CUCHILLITO Y NAVAJITA                 |
| CABESITA DE AJO                       | 17 | CABESITA DE AJO                       |
| CARMEN, GAZTAINA-SALTZAILEA           | 18 | CARMEN LA CASTAÑERA                   |
| DON PAQUITO, AGURRA                   | 19 | DON PAQUITO, EL SALUDO                |
| ARROSARIODUN LODIA                    | 20 | EL GORDO DE LOS ROSARIOS              |
| DON PEPITO                            | 21 | DON PEPITO                            |
| GALIZIARRAK                           | 22 | LAS GALLEGAS                          |
| HERNANI KALEKO HERRENA                | 23 | EL COJO DE LA CALLE HERNANI           |
| LA SAÑUDA                             | 24 | LA SAÑUDA                             |
| JAUREGUICHU                           | 25 | JAUREGUICHU                           |
| PEPITA, AREATZAKO KIOSKOA             | 26 | PEPITA, KIOSKO DEL ARENAL             |
| LUCIO VICARIO, "BOTINES"              | 27 | LUCIO VICARIO, "BOTINES"              |
| JOSE LUIS PITARQUE                    | 28 | JOSE LUIS PITARQUE                    |
| BARTOLOME VALLE BILBAO, "DON BARTOLO" | 29 | BARTOLOME VALLE BILBAO, "DON BARTOLO" |
| BERNARDO ALONSO GUARDIA               | 30 | EL GUARDA BERNARDO ALONSO             |
| PEREIRA, "TALENTO"                    | 31 | PEREIRA, "TALENTO"                    |
| FELIX UNAMUNO                         | 32 | FELIX UNAMUNO                         |
| JULIAN ALEGRIA                        | 33 | JULIAN ALEGRIA                        |
| LUCIANO                               | 34 | LUCIANO                               |
| MARTIN ZUBIAUR                        | 35 | MARTIN ZUBIAUR                        |
| RAMON DE ECHEVARRIOSTE                | 36 | RAMON DE ECHEVARRIOSTE                |
| SERAFIN MENCHACA                      | 37 | SERAFIN MENCHACA                      |
| MARIO UGARTE                          | 38 | MARIO UGARTE                          |
| JOSE MARIA BASTERRA                   | 39 | JOSE MARIA BASTERRA                   |
| JULIAN ECHEVARRIA "CAMARON"           | 40 | JULIAN ECHEVARRIA "CAMARON"           |
| PACHOTE                               | 41 | PACHOTE                               |
| SALUSTIANO ORIVE                      | 42 | SALUSTIANO ORIVE                      |
| PEREZ "AZALPEN-EMAILEA"               | 43 | PEREZ "EL EXPLICADOR"                 |
| "TXOMIN BARULLO"                      | 44 | "TXOMIN BARULLO"                      |
| JAUNGOIKOA                            | 45 | JAUNGOIKOA                            |
| JAIME SELVY                           | 46 | JAIME SELVY                           |
| ADONIS POCHEVILLE                     | 47 | ADONIS POCHEVILLE                     |
| JUAN BILBAO                           | 48 | JUAN BILBAO                           |
| JULIAN GISBERT                        | 49 | JULIAN GISBERT                        |
| JOSE MARIA GOROSTIZA                  | 50 | JOSE MARIA GOROSTIZA                  |
| JULIAN CORTADI                        | 51 | JULIAN CORTADI                        |

# SARRERA

## INTRODUCCIÓN

**B**izkaitar Entzutetsuen Galeria pertsona ospetsu eta aipagarrien inguruan olio egindako 239 erretratuz osatutako bilduma da. Pertsona horiek, hain zuzen ere, XIX. mendeko azken urteetako eta XX. mendearen lehen erdiko eguneroko bizitzan eta jarduerasparu askotan nabarmendu ziren Bizkaian, eta, zehazki, Bilboko Hiribilduan.

Galeria, Bilboko Udalaren jabetzakoa eta Museoan 1995etik gordailu gisa utzitakoa, 1950. urtearen inguruan sortu zen, José Antonio eta Luis de Lerchundi y Sirotich anaien proiektu pertsonal gisa; izan ere, lurraldeko Museo ikonografiko moduko bat egiteko ideia izan zuten, etorkizuneko oroitzapenerako gordez bertako iraganik hurbilena, garai hartako gizon eta emakume nabarmenen irudien bitartez.

Bilduma osoa 1957an aurkeztu zen jendaurrean, Bidebarrietako Liburutegian egindako erakusketa batean. Fatimako Amaren Kristau Karitateko Lanak antolatutako erakusketa hark ongintza-asmoa zuen: Hiribilduan tuberkulosiak jota zeuden gaixoen dirua lortzea, alegia.

Hamar urte geroago, 1967an, olioak salgai jarri ziren Bilboko Tavira Galerian. Han, Javier Ybarra y Bergé ikusi zituen, garai hartan Bilboko alkate zenak, eta, Manuel Basas artxibozainak aholkatuta, lanok eskuratzea erabaki zuen. Modu horretan, udal jabetzakoak izatera pasatu ziren; alabaina, irudiak Galerian egon ziren bitartean, olio horietako hamazortzi saldu egin ziren, eta, beraz, orain 221 lan dira.

Erretratuen Galeria zenbait ataletan zegoen antolatuta: Kalekumeak, Kirolariak, Herrikoiak, Artistak, Idazleak, Ospetsuak, Ongileak, Negozio-gizonak eta Goi Gailurrak. Pertsonaia asko direnez eta, eurekin batera, aipamen biografiko labur bat jarri nahi izan denez, Museoak erabaki du pertsona hauen berri zenbait emanalditan eskaintzea; hori horrela, lehenengo emanaldia, kalekumeei eta pertsona herrikoiei eskainitakoa, orain aurkezten dugu.

Erakusketa honetan erretratututako pertsonaiak ez dira izugarri ospetsuak, ez eta euren ekintza eta obregatik garrantzitsuak ere, ezpada eguneroko bizitzako pertsonak, bitxiak, sinpatikoak, bihozberak, azeriak... Euren bitartez, Hiribilduko iraganeko bizitzako zenbait pasarteren berri izango dugu, eta, beraiei esker, era berean, bilbotarren izaera eta espiritua osatu duten ezaugarrietako batzuk antzemango ditugu. Beraiek gogoraziko digute nolakoa zen Zazpi Kaleetako Bilbo hura, Botxo hura, apurka-apurka haziz zihoana, baina, artean, kutuna, maneigarria, erromantikoa zena... Dagoeneko ahaztuta dauden txokoz eta lekuz osatutako Bilbo hura, pertsonaia xeble eta pintoresko hauen anekdota eta gertakari koloretsuz beteak. Anekdotak horiek, hain zuzen ere, gai ugari buruzkoak dira, baina, tartean, gure Hiribilduaren gaur egungo ikonoak eta erreferenteak diren gaietako batzuk agertzen dira: Athletic, Korala, zezenak, jaiaik...

**L**a denominada Galería de Celebridades Bizkainas es una colección originalmente integrada por 239 retratos al óleo de personajes famosos y notables, destacados en muy diversos campos de la actividad y la vida cotidiana de los últimos años del siglo XIX y la primera mitad del siglo XX en Bizkaia y, muy particularmente, en la Villa de Bilbao.

La Galería, propiedad del Ayuntamiento de Bilbao y depositada en el Museo desde el año 1995, surge, en torno a 1950, como un proyecto personal de los hermanos José Antonio y Luis de Lerchundi y Sirotich, quienes concibieron la idea de crear una suerte de Museo iconográfico del territorio, preservando para la memoria futura su pasado más reciente, a través de la imagen de los hombres y mujeres descolantes en aquella época.

La colección completa fue presentada públicamente en el año 1957, en una exposición realizada en la Biblioteca de Bidebarrieta con una finalidad benéfica, la de obtener fondos para los enfermos tuberculosos de la Villa, corriendo la organización a cargo de la Obra de Caridad Cristiana Nuestra Señora de Fátima.

Diez años más tarde, en 1967, los óleos aparecen a la venta en la Bilbaina Galería Tavira, lugar donde los vio el entonces alcalde de Bilbao, Javier Ybarra y Bergé, quien, asesorado por el archivero Manuel Basas, decidió su adquisición, pasando a ser propiedad municipal, si bien durante el tiempo que estuvieron en la Galería, dieciocho de los óleos fueron vendidos, siendo ahora su número de 221.

La Galería de retratos estaba organizada en varios apartados o secciones: Tipos Callejeros, Deportistas, Hombres Populares, Artistas, Escritores, Personalidades, Benefactores, Hombres de Negocios y Altas Cumbres. Su elevado número y el deseo de presentar a los personajes con una breve reseña biográfica, ha llevado al Museo a la decisión de exponerlos en varias entregas, presentando ahora la primera de ellas, dedicada a los tipos callejeros y hombres populares.

Los personajes retratados en esta muestra no son grandes personalidades, importantes por sus hechos y realizaciones, sino tipos del vivir cotidiano, curiosos, simpáticos, tiernos, pillos... a través de los cuales descubriremos algunos retazos del pasado de la vida de la Villa y a través de los cuales, también, reconoceremos algunos de los rasgos que han ido conformando el espíritu y el ser característico del bilbaino. Ellos nos permitirán evocar la personalidad e impronta del Bilbao sietecallero, del Bochito, ya en proceso de crecimiento pero todavía íntimo, manejable, romántico... Un Bilbao de parajes y lugares ya olvidados, repleto de coloridas anécdotas y "susedidos" protagonizados por estos personajes curiosos y pintorescos, relacionados con los más variados temas, entre los que ya se apuntaban algunos de los que hoy son iconos y referentes de nuestra Villa: el Athletic, la Coral, los toros, las fiestas... ..

Jatorriz multzo hauek osatzen zituzten koadro guztietatik (50), 44 sartu ziren Museoan, eta Lorito, Jodra, Begoñako Santua, Ochandiano “Chimbo”, Santiaguito eta Jaungoikoaren erretratuak falta dira. Azken hori esku pribatuetan topatu da, eta lanaren jabeek modu eskuzabalean laga dute aldi baterako, erakusketan ikusgai jarri ahal izateko.

Museoak eskertuko luke gainerako lanak non dauden jakiteko balio dezakeen edozein albiste, bai eta erretratutako eta erakusketan ikusgai jarritako pertsonaietako batzuei buruzko informazioa ere; izan ere, ahalegindu arren, ezin izan dugu pertsonaia horien zirriborro biografikorik egin. Hain zuzen ere, Martin Zubiaur, Adonis Pocheville, J. Gisbert, Julian Cortadi eta José María Basterraren (izen bereko arkitektoaren eta negozio-gizonaren garaikidea) oroitzapen publikoak berreskuratu nahiko lituzke Museoak, eta horretarako eskatzen du herritarren lankidetzan.

Del total de cuadros que originalmente integraban estos grupos (50), ingresaron en el Museo 44, faltando los retratos de Lorito, Jodra, El Santo de Begoña, Ochandiano “Chimbo”, Santiaguito y Jaungoikoa. Este último ha sido localizado en manos privadas, habiendo accedido generosamente sus propietarios a prestarlo temporalmente para su participación en la muestra.

El Museo agradecería cualquier noticia sobre el paradero de los restantes, así como información sobre algunos de los personajes retratados y expuestos en la muestra sobre los que, a pesar de nuestros esfuerzos, no hemos conseguido realizar un esbozo biográfico. Martin Zubiaur, Pachote, Adonis Pocheville, J. Gisbert, Julian Cortadi y José María Basterra (un contemporáneo del arquitecto y del hombre de negocios que llevaron su mismo nombre), son los nombres de las personas cuyo recuerdo público el Museo estaría interesado en recuperar y para lo que reclama la colaboración de la ciudadanía.

Izen horrekin ezagutzen zen Salvador Izaguirre, Bilboko kaietako zamaketaria. Urte askoko esperientzia zenez eta oso langilea zenez, enpresa armadore guztiek sinpatia eta estimu handitan zuten, eta, hori dela-eta, sarri askotan, langileburu edo guardia lanetan aritzen zen portuko jardunetan.

Hiru Zutabe plazako ostatu apal batean bizi zen, eta, igandero-igandero, “Taberna del corte del río” zeritzona bisitatzen zuen, zubiaren bestaldeko Ibeni kaian. Taberna hura Enrique Aldecoa sortu zuen 1874. urtean, eta ospetsua zen Itsasadarreko angula-biltzaileak bertara joaten zirelako. Lan arloan dohain handiak izateaz gain, Julián Alegríaren arabera, entzumen ezin hobea zeukan, eta, ondorioz, kaietara heltzen ari ziren itsasontzien sirena-soinuak urrunetik antzematen zituen. Baina bere trebezia harago zihoan; izan ere, aipatutako soinua zehaztasun osoz imitatzeko gai zen, eta, azkenean, hori izango zen bere zorigaiztoaren iturria.

Hain zuzen ere, udazkeneko goiz batez, “Rhenania” itsasontzi alemaniarra porturatu zen. Koko-kargamentu handia zekarren, eta Bilboko gaztetxo guztiak ontziaren ingurura hurbildu ziren, eskura zegoen guztia harrapatzeko asmo ez lar santuarekin. Salvador Izaguirre, zaindari-lana betetz, eskuluzeak uxatzen saiatu zen, eta, haien kontra harri bat botatzen zuen bitartean, “Uuuuuuuu” oihukatu zuen indar handiz. Une hartan, gazteak ihesean joan ziren, baina, aurrerantzean, berak egindako soinu hark bizitza osoan jarraituko zion, eta huraxe izango zen bere hondamendi mental eta ekonomikoaren arrazoia. Edonora zihoala, umeek, burla-doinuan, “uuu” eginez agurtzen zuten, eta, ondorioz, burua galdu eta pertsona mozkote eta zaparrotea bihurtu zen, eta hankak kakotu egin zitzaizkion. Txapel urdin zurbil batez eta jaka adabatu batez jantzita joaten zen, eta makila handi bat eramane ohi zuen eskuin eskuan; makila indarrez dantzarazten zuen, irainak ere botatz, umeen txantxak geldiarazteko asmoz.

Salvador Izaguirre 1903ko urriaren 28an hil zen, udaletxeko zubi birakarian uretara jausi zenean; izan ere, une hartan, iskanbila handiak ari ziren gertatzen leku hartan, poliziak kargatu egin baitzuen Bizkaiko meatze-arro osoan deitutako greba orokorrean parte hartzen ari ziren langileen aurka, zenbait hildako eta zauritu utziz.



Con este nombre se conocía a Salvador Izaguirre, estibador de los muelles bilbainos, cuyos muchos años de experiencia y laboriosidad le habían granjeado la simpatía y el aprecio de todas las casas armadoras, ejerciendo por ello, en numerosas ocasiones, de capataz o de guardia en las actividades portuarias.

Vivía en una modesta posada de la Plaza de los tres Pílares y todos los domingos visitaba la “Taberna del corte del río”, en el muelle de Ibeni, al otro lado del puente, fundada en el año 1874 por Enrique Aldecoa y célebre por ser frecuentada por los anguleros de la Ría. A sus virtudes laborales unía, según Julián Alegría, un perfecto sentido del oído que le permitía reconocer a largas distancias los sonidos de las sirenas de los barcos que llegaban a los muelles. Pero su destreza iba más allá, permitiéndole también imitar a la perfección el citado sonido, lo que a la postre se convertiría en la causa de su desgracia.

En efecto, un mañana de otoño atracó en el muelle un barco alemán, de nombre “Rhenania”, con un gran cargamento de cocos que atrajo a toda la chavalería bilbaina con el ánimo poco santo de afanar todo lo que se pusiera a tiro. Salvador Izaguirre, ejerciendo su tarea de vigilante, trató de ahuyentar a los ladronzuelos y, al tiempo que lanzaba una piedra contra ellos, profirió un potente “Uuuuuuuu” que, si bien consiguió ponerlos en fuga, se convertiría en un sonsonete que ya le acompañaría de por vida y sería causa de su ruina mental y económica. Las burlas de los chiquillos, que le saludaban con un “uuu” allá por donde fuere, terminaron por trastornarle y convertirle en una figura rechoncha y achaparrada, de piernas arqueadas, que, tocado con descolorida boina azul y chaqueta remendada, llevaba un gran palo en su mano derecha que esgrimía con contundencia acompañado de insultos en un intento por poner freno a las chanzas infantiles.

Salvador Izaguirre falleció el 28 de octubre de 1903 al caer al agua en el puente giratorio del Ayuntamiento, coincidiendo con la gran algarabía formada en aquel lugar por las descargas policiales contra los obreros que participaban en la huelga general convocada en toda la cuenca minera de Bizkaia y de la que resultaron varios muertos y heridos.

#### BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- Julián Alegría. *Humorada chimberiana. Semblanzas de tipos populares*. Bilbao, 1956. pp. 56-64. or.
- Emiliano de Arriaga. *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaino neto. Compilado por un chimbo*. Bilbao: Tip. Amorrortu, 1896. p. 279. or.
- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.



### CHATA MOZKORRA

Izen ezezaguneko emakume gajo hau atzera eta aurrera ibiltzen zen Zazpi Kaleetan, beti mozkortuta eta umeen barre krudelen artean. Ez zitzaion etxerik ezagutzen, eta, gauero, pertsona esku-zabalen batek Galera Etxera eramaten zuen lotara, Hiribilduko kartzelara, alegia; azkenean, delituren bat egin eta hantxe sartu zuten, zaramaren gurdian eramanda.

Bilboko Hiribilduko Galera Etxea Bilbo Zaharrean zegoen, hain zuzen ere Urazurrutia kalean, gaur egun Bilbao Arte dagoen orubean. 1783an sortu zuen Udalak emakumeen kartzela izateko, eta Zamudioko atarian zegoen kartzelak osatzen zuen Hiribilduko presondegi-sarea. Azken hori 1796an bota zuten, eta, beraz, aurre-rantzean, Urazurrutia kaleko Galera Etxea izan zen Hiribilduko kartzela bakarra, izaera mistokoa, harik eta, 1868an, Larrinagako Kartzela eraikitzeke erabakia hartu zen arte. Eraikin zahar hura XIX. mendearen amaieran eraitsi zuten, eta, 1897an, emakumeen kartzela berria eraikitzeke proiektua enkargatu zitzaion Enrique Epalza arkitektoari; azkenik, Solokoetxeke Galera Etxea egin zuten, Zabalbide eta Sorkunde kaleen artean. Eraikin horrek zutik jarraitzen du oraindik ere, eta Udal Musika Kontserbatorioa dago bertan.

### CHATA LA BORRACHA

De nombre desconocido, esta desgraciada mujer pululaba por las calles del Casco Viejo, siempre en estado de embriaguez y convertida en el cruel hazmerreir de la chiquillería. Sin domicilio conocido, todas las noches era llevada por algún alma caritativa a dormir a la Casa Galera, la cárcel de la Villa, donde finalmente ingresó como castigo por algún delito cometido, siendo transportada allí a bordo del carro de la *zarama* (basura).

La primitiva Casa Galera de la Villa de Bilbao estaba ubicada en Bilbao la Vieja, concretamente en la calle Urazurrutia, en el solar donde hoy se asienta Bilbao Arte. Fue creada en 1783 por el Ayuntamiento como cárcel de mujeres, completando la red penitenciaria de la Villa la prisión situada en el portal de Zamudio. Demolida esta última en 1796, la Casa Galera de Urazurrutia quedó como única cárcel de la Villa, con carácter mixto, hasta el año 1868 en que se acordó la edificación de la Cárcel de Larrinaga. El viejo edificio fue demolido a fines del siglo XIX y en 1897 se encarga al arquitecto Enrique Epalza el proyecto para la edificación de una nueva cárcel de mujeres, finalmente plasmado en la Casa Galera sita en Solokoetxe, entre las calles Zabalbide y Sorkunde, edificio que hoy todavía permanece en pie y en el que se ubica el Conservatorio Municipal de Música.

### BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.

## COLLIN

Alexos Próspero Collin Leonard 1808ko urriaren 4an jaio zen Gasteizen. Bere gurasoak frantziarrak ziren (aita Tolosakoa eta ama Metzkoa), eta Napoleonen tropekin heldu ziren Gasteizera, Independentzia Gerra zela-eta. Collinen aitabitxia Juan Francisco Guillois izan zen; hain zuzen ere, azken horren bataio-partidak dio Frantziako armadako gerrakomisarioa eta Gasteizko poliziaren arduraduna zela, hau da, ez zuen nolanahiko kargua; ondorioz, garaiko zurrumurruek zioten Collin jeneral frantses baten semea zela.

Tropek gatazka horretan izandako mugimenduen ondorioz eta Frantziako armada penintsulatik erretiratu ostean, gure protagonista Bilboko Hiribildura etorri zen bizitzera. Ume-zurtz, galduta edo gurasoek abandonatuta, Collin ohikoa bihurtu zen Hiribilduko kaleetan, eta, haziz joan ahala, hainbat lan egin zituen: mandatari, zigarro-saltzaile, zamaketaria kaietan... Herritar baketsu eta zintzoa zen, lasai asko hitz egiten zuen mundu guztiarekin, eta inoiz ez zitzaion biraorik entzun, baina, edozelan ere, asko gustatzen zitzaizkion tabernak eta edaria, eta gehiegizko zaletasun horren erruz kirtendu egin zen, eta, Emiliano de Arriagaren arabera, gizon-duintasuna galdu zuen. *“Handikotea eta lodia zen, flan txigortuko kokotearekin eta bizkar zabalarekin; bere gorputzak patata-fardo izugarria zirudien, eta bere aurpegi potoloak kortxoz zikindutako zirriborroa, bertan nekez sumatzen baitzen haren aurpegiera. Horrela, osotasunean –lau-hankatan ibiltzea izan ezik, eta hori ere behin baino gehiagotan egin behar izan zuen–, pakidermoaren antza zuen, hain ziren dorpeak haren formak eta astunak haren mugimenduak”.*

Haren ospea areagotu egin zen, Bilbora gobernadore berria heldu zenean; izan ere, itxura fisikoari zegokionez, gobernadore haren antz handia zuen, eta gertakari hori inspirazio gisa erabili zuten “La Pastelería”<sup>1</sup> sozietateko kideek, euren txantxarik ezagunenetakoa egiteko: Collin frakez, kapela luzez, eskularru zuriz eta borladun bastoiz jantzi zuten, zezen-plazara eramane zuten eta presidentearen palkoaren azpian eserarazi zuten, eta, “La Pastelería” lokalean edandako kopek eragindako erritmoaren eraginez, zapia atera, altxatu eta agur egiten zuen, gobernadorea balitz bezala; hain zuzen ere, gobernadorea bere palkoan zegoen, eta, presidentzia bikoitz hark ikusleen artean sortzen zuen barre-algareraz ohartu zenerako, denboratxo bat igaro zen.

Collinek ez zeukan etxebizitza finkorik, eta, ondorioz, elizen atarietan, etxeen bebarruetan edo garraio publikoetan egiten zuen lo, eta, hain zuzen ere, San Nikolas plazatik irten eta Bermeora zihoan garraio horietako batean aurkitu zuten hilda 1845eko igande goizalde hotz batean, 37 urte besterik ez zituela.



## COLLIN

Alexos Próspero Collin Leonard nació en Vitoria el 4 de octubre de 1808, hijo de padres franceses (de Toulouse el padre, de Metz la madre), llegados a aquella ciudad con las tropas napoleónicas en el marco de la Guerra de la Independencia. Collin fue apadrinado por Juan Francisco Guillois, a quien la partida de bautismo describe como comisario de guerra del ejército francés y encargado de la policía de la ciudad de Vitoria, un cargo nada despreciable que avalaría la rumorología popular de la época que aseguraba que Collin era hijo de un general francés.

Los movimientos de las tropas durante el conflicto y la posterior retirada del ejército francés de suelo peninsular, terminaron con nuestro protagonista asentado en la Villa de Bilbao. Huérfano, perdido o abandonado por sus padres, Collin se convirtió en

un rostro habitual en las calles de la Villa, según fue creciendo, labores de recadista, cigarrero, descargador en los muelles... Pacífico y honrado ciudadano, que hablaba de tu a todo el mundo y al que nunca se le oyó blasfemar, era, sin embargo, muy aficionado a las tascas y la bebida, afición desmedida que terminó por embrutecerlo y por hacerle perder, en palabras de Emiliano de Arriaga, su dignidad de hombre. *“Grandonazo y gordo, con cogote de flan tostado y anchas espaldas, resultaba su cuerpo como un inmenso fardo de patatas y su carota como un chafarrinón embadurnado en corcho, pues apenas en ella se dibujaban las facciones. Así en conjunto –salvo el andar a cuatro patas y eso más de una vez hubo de hacerlo–, semejaba a un paquidermo, según eran torpes sus formas y pesados sus movimientos”.*

Su popularidad se acrecentó al llegar a Bilbao un nuevo Gobernador cuyo parecido físico con él era tan grande que inspiró a los miembros de “La Pastelería”<sup>1</sup> una de sus bromas más conocidas: vistieron a Collin de frac, sombrero de copa, guante blanco y bastón con borlas, lo llevaron a la plaza de toros y lo sentaron bajo el palco presidencial, desde donde, perfectamente aleccionado al ritmo de varias copas ingeridas en el local de la Pastelería, sacaba el pañuelo, se levantaba y saludaba, cual si realmente fuera el propio Gobernador, quien, por otra parte, situado en su palco, tardó un rato en darse cuenta de la hilaridad que la doble presidencia estaba provocando entre el respetable.

Sin domicilio fijo, Collin acostumbraba a dormir en los atrios de las iglesias, los portales de las casas o los coches del transporte público, y fue precisamente en uno de estos, el que desde la Plaza de San Nicolás iniciaba su ruta hacia Bermeo, donde una fría madrugada de domingo del año 1845 fue hallado muerto a la temprana edad de 37 años.

1 Arte eta aisialdi arloko sozietatea, XIX. mendearen erdialdeko Bilboko gizarte-ko gazte-multzotz batez osatua (Pancho Bringas, Manuel Gortazar, Juan Amann, Fernando de Zabalburu, Enrique de Aldana, Jose Maria de Ugarte...). Matossi y Cia konpainiaren Café Suizo gozotegia zen euren elkargunea, Plaza Barrian, sarrera Posta kalean zuen alboko lokal batean. Bertako kideek mota guztietako jaiak, txantxak eta xelebrekeriak egiten zituzten, bai eta pinturarekin, musikarekin eta poesiarekin erlazionaturak agerraldi artistikoak ere.

1 Sociedad artístico recreativa que reunía a un grupo jóvenes de la alta sociedad bilbaina de mediados del siglo XIX (Pancho Bringas, Manuel Gortazar, Juan Amann, Fernando de Zabalburu, Enrique de Aldana, Jose Maria de Ugarte...). Tenía su centro de reunión en la pastelería del Café Suizo de Matossi y Cia. sito en la Plaza Nueva, un local anejo con entrada por la C/ Correo. Sus miembros promovieron festejos de todo tipo, bromas y humoradas, junto a genuinas manifestaciones artísticas, relacionadas con la pintura, la música y la poesía.

## ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA • FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA

- Emiliano de Arriaga. *Vuelos cortos de un chimbo*. Bilbao: El Tilo, 1994. pp 182-184 or.
- C. Estornes. *Alejo Prospero Collin*. <http://memoriasclubdeportivodebilbao.blogspot.com>
- Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Sakramentu Erregistroak. Archivo Histórico Diocesano de Vitoria. Registros Sacramentales. [www.ahdv-geah.org](http://www.ahdv-geah.org)



### CHOLOPOCHOLO

Elorza abizeneko bilbotar hau pertsona triste eta malenkoniatsua zen, burumakur eta pentsakor ibiltzen zena Hiribilduko kaleetan, pauso neurritsu eta itxura goibelarekin. Paseoan zihoanean, zeukan hernia baten erruz, geldialdi luzeak egiten zituen; hori horrela, topatzen zuen lehenengo bankuan eseri, eta beti berarekin eramaten zuen diru-zorro txiki bat uzten zuen bere ondoan. Inork ez zuen sekula jakin zer zeukan zorro haren barruan.

Maiz joaten zen tenplu eta prozesioetara, eta, bertan, zuen ahots indartsu eta ozenagatik nabarmentzen zen; izan ere, beste ahots guztien artean gailentzen zen kantuetan eta otoitz guztien itxiertan: *Ameenss* eta *Ora pro nobiss* haiek ospetsuak egin ziren; izan ere, ese txistukari batez luzatzen zituen, eliztar guztien barre-algaren artean.

Baina, batez ere, bere herrikideei dirua ateratzeko zuen trebeziagatik zen ezaguna. Eskatzetik bizi zen, baina inoiz ez zuen berarentzat eskatzen. Hiribilduko etxerik onenetan agertu ohi zen, eta jabeek laguntza ekonomikoa eskatzen zien, bere lagun eta ezagun ugarien egoera gogorak konpondu ahal izateko. Zeukan itxura tristeari esker, beti lortzen zituen laguntza horiek.

Emiliano de Arriagak brusaz eta txapel urdinez jantzita deskribatu zuen, gorputza konkortuta, zintzurra moztutako ahariaren begiekin, eta bizar beltz, luze eta narrasarekin. Urteek bizarra zuritu zioten, eta, dirudienez, denborarekin janzkera aldatu zuen, baina ez itxura.

### CHOLOPOCHOLO

Este bilbaino, de apellido Elorza, era un personaje triste y melancólico que discurría por las calles de la Villa cabizbajo y mediatundo, con paso medurado y aspecto taciturno. En su pasear, y debido a una hernia que padecía, hacía largas paradas, sentándose en el primer banco que encontraba y dejando a su lado una pequeña cartera que siempre llevaba consigo pero que nadie supo jamás lo que contenía.


Asiduo de templos y procesiones, destacaba en ellas por su voz potente y sonora, que descollaba sobre todas las demás en los cánticos y en el cierre de todas las oraciones: eran famosos sus *Ameenss* y sus *Ora pro nobiss*, que prolongaba en sibilante ese para jolgorio de todos los feligreses.

Su mayor renombre, sin embargo, provenía de su habilidad para sablear a sus conciudadanos. Vivía de pedir, pero nunca pedía para sí. Acostumbraba a presentarse en las mejores casas de la Villa solicitando de sus dueños ayuda económica para solucionar las duras vicisitudes por las que sus múltiples amigos y conocidos periódicamente atravesaban, ayuda que, favorecido por su aire de tristeza, terminaba siempre por conseguir.

Emiliano de Arriaga lo describió ataviado con blusón y boina azul, cuerpo encorvado, ojos de carnero degollado y larga y desaliñada barba negra. Los años, además de blanquear su barba, parece le hicieron mudar su indumento, aunque no su aspecto.

### BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- *Galeria de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- Emiliano de Arriaga. *Revoladas de un chimbo*. Bilbao, 1920. pp. 161-164. or.
- K-Toño Frade Villar. *Suseditos botxeros y bilbainos seles y chirenes*. Bilbao 2009.
- Julian del Valle. *Mi calle. El Bilbao de principios de siglo visto desde Carnicería Vieja*. Bilbao: El Cofre del Bilbaino, 1968. p. 176 or.



## JULIAN BEGIBAKARRA

Ez dakigu pertsona honen izenari, jatorriari eta lanbideari buruzko ezertxo ere, José de Oruetak egin zuen deskribapena izan ezik; haren arabera, XIX. mende amaierako Bilboko pertsonaia herrikoietako bat zen:

*“Mozkor aparta, xalaua, denek esaten zioten moduan; beroki luze eta higatua eramaten zuen, begiak lauso eta eroriak, eta bimba erako kapela okertua eta belarrietaraino sartua. Jendearen aurrean gelditu, eta zain geratzen zen, ohiko “puztu zaitez, Julián” hura esan ziezaioten. Orduan, ahoa itxi eta masailak puzten zituen, ia lehertzeraino. Paseoan zibonak papo-putzada<sup>1</sup> ederra ematen zion, eta berak, eskua luzatuta, tarifaren sosa edo txanpon pareta hartu, eta tabernara joaten zen arrapaladan.*

*Erresistentzia bikoitz itzela zuen; izan ere, papo-putzadak boxeolarien moduan jasaten zituen, begiak kliskatu gabe, eta edanean ezin izan zen frogatu nolako erresistentzia zuen”.*

<sup>1</sup> Jatorrizko testuan, “papuchada”. Masailak puztuta dituen pertsona bati eskuarekin ematen zaion kolpetxo, soinu berezi bat sorrarazten duena. Emiliano de Arriaga. *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaino neto*. Compilado por un chimbo. Bilbao: Tip. Amorrortu, 1896. 217. or.

## JULIAN EL TUERTO

Nada sabemos de la identidad, origen y oficio de este personaje, salvo la descripción que de él nos dejó José de Orueta como uno de los tipos populares que poblaban el Bilbao de fines del siglo XIX:

*“Un delicioso trompa, salao, como le decían todos, con un gabán largo, raído, los ojos borrosos y caídos y un sombrero bimba torcido y metido hasta las orejas. Se paraba delante de las gentes y esperaba a que le dijese el ritual “infla, Julián”. Entonces cerraba la boca e hinchaba los carrillos hasta reventar. El paseante le pegaba su buena papuchada<sup>1</sup> y él, alargando la mano, agarraba el cuarto o dos cuartos de tarifa y salía disparado a la taberna.*

*Tenía un doble aguante enorme, pues en papuchadas se las tragaba como un boxeador, sin pestañear, y bebiendo no pudo probarse su resistencia”*

<sup>1</sup> Papuchada (contracción de papo-putzada, lit. soplada o inflada de papo). El golpe suave que se da con la mano a otra persona que tiene inflados los carrillos, produciendo con el choque al desinflarse un ruido especial. Emiliano de Arriaga. *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaino neto*. Compilado por un chimbo. Bilbao: Tip. Amorrortu, 1896. p. 217

## BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- José de Orueta. *Memorias de un bilbaino*. Bilbao: El Tilo, 1993. p. 107. or.

## JHOSE MARI

Jose Maria Gorrochategui Eguiguren  
(Izurtza 1825-Bilbao 1900)

Jose Maria Gorrochategui, “Cochemari” izenarekin ere ezagutzen zena, XIX. mendearen erdialdean heldu zen Izurtzatik Bilbora. Altuera ertaina zuen, aurpegi argal-argala eta bizarra beti egin gabe, begitxo erdi itzaliak, sudur eta belarri handiak, burua kapelaz estalita, alkandora ez lar garbia, jaka luzea eta praka beti jasoak, berna iletsuak eta zapatatzararak bistan utziz.

Gorroto zuen lan egitea, uste baitzuen soilik astoak jaio zirela horretarako, eta lan edo zerbitzu txikien truke eskaintzen zizkieten propina onak ere ukatzen zituen. Bere ezezkoaren arrazoien gaineko galderaren bat egiten ziotenean, erantzuna beti izaten zen berbera: “...Horrek nekatu egiten du!”.

Diru-sarrerak lortzeko, bere trebezia eta ezagutza bakarra zela dirudiena erabiltzen zuen: Bizkaiko herri, errepublika, elizate, hiribildu eta hiri guztiak buruz eta bata bestearen atzean esatea; zerrenda horri amaiera emateko, Bilbo aipatzen zuen beti, eta eskua luzatzen zuen isiltasunean, jakituria eta dibulgazio geografikoko ariketa haren truke ordainean bat eskatuz. Arriagak “Bizkaiko Diogenes” eta “Izurtzako Filosofoa” deitzen zion Jhose Mariri, eta norbaitek “Cochemari, esan herriak!” botatzen zion bakoitzean, hark bere parrastadari ekiten zion, baina etenaldiren bat bazegoen, ez zen zerrendarekin jarraitzeko gai izaten, eta, beraz, hasieratik ekin behar izaten zion berriro.

Mendearen azken urteetan oso zahar zegoenez, Miserikordiarren Babes-etxean sartu zuten, berak halakorik inoiz nahi izan ez zuen arren. Kroniken arabera, 1900. urtearen hasieran, babes-etxeke logelen garbiketa orokorra egin zen, eta, horretarako, koltxoiek leihuetan jarri ziren, behar bezala airezta zitezten. Gauzak horrela, gure protagonista bere logelara heldu eta koltxoi gainean etzan zen, zegoen bezala; ondorioz, leihotik behera erori eta burua apurtu zuen.



## JHOSE MARI

Jose María Gorrochategui Eguiguren  
(Izurtza 1825-Bilbao 1900)

También conocido como “Cochemari”, Jose María Gorrochategui llegó a Bilbao desde su Izurtza natal a mediados del siglo XIX. De mediana estatura, con la cara chupada y siempre sin afeitarse, ojillos mortecinos, nariz y orejas generosas, tocaba su cabeza con un sombrero y vestía camisa no muy limpia, chaquetón y pantalones permanentemente arremangados, mostrando sus peludas pantorrillas y sus grandes zapatones.

Aborrecía trabajar, pues consideraba que sólo los burros habían nacido para ello y llegaba incluso a rehusar las buenas propinas que le eran ofrecidas a cambio de pequeñas tareas o servicios. Su contestación a quien le

interrogaba para conocer las razones de su negativa era siempre la misma: “...¡Se cansa!”.

Sus ingresos los obtenía de la que parecía su única habilidad y también su único conocimiento: la enumeración, de carrerilla, de todos los pueblos, repúblicas, anteiglesias, villas y ciudad de Bizkaia, enumeración que cerraba con la mención de Bilbao y el gesto de alargar la mano en silencio reclamando alguna recompensa por aquel ejercicio de sabiduría y divulgación geográfica. Jhose Mari, a quien Arriaga llamaba el Diógenes de Bizkaia y el Filósofo de Izurtza, iniciaba su retahíla toda vez que alguien le reclamaba, “Cochemari, díte los pueblos!”, pero era incapaz de retomarla si mediaba alguna interrupción, de modo que había de comenzar de nuevo por el principio.

En los últimos años del siglo, su ya avanzada edad le llevó a ser ingresado en el Asilo de la Misericordia, algo a lo que siempre se había resistido. Cuentan las crónicas que, coincidiendo con el inicio del año 1900, se hizo una limpieza general en las habitaciones del asilo, colocando los colchones en las ventanas para arearlos convenientemente. En ese punto llegó nuestro protagonista a su habitación y se acostó sobre el colchón, tal y como estaba, cayendo por la ventana al suelo con la mala fortuna de que se rompió la cabeza.

## ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA · FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA

- Emiliano de Arriaga. *Revoladas de un chimbo*. Bilbao, 1920. p. 173-179. or.
- *Galeria de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- K-Toño Frade Villar. *Suseditos botxeros y bilbainos seles y chirenes*. Bilbao 2009.
- Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa. Sakramentu-erregistroak. Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia. Registros Sacramentales. [www.aheb-beha.org](http://www.aheb-beha.org).



### KLARINETEDUNA

Pertsona honen izenik, jatorririk eta helbiderik ez dugu ezagutzen, baina, hala ere, ohikoa zen mende aldaketaren inguruko urte haietan Hiribildutik hurbileko elizate guztietan egiten ziren erromerietan.

Itxura arlotea zuen: praka handiegia eta barren zirpilduekin, jaka handi bat alkandora zikinaren gainean, txapeltxo buruan, zola askatuko zapata apurtuak, gosea erakutsiz bezala... eta, besapean, bere klarinete zahar, likatsu eta banaezina.

Astiro eta apur bat makurtuta zihoala, denborak ezin hobeto neurtuz, apurka-apurka talde alaiengana hurbiltzen zen; taldeak korroan egoten ziren jesarrita janarien inguruan, eta meriendan hasteko prest zeudenean, gizon hura klarinetea jotzen hasten zen. Soinu triste harekin eta gizonak zeukan itxura gosetiarekin (aukeraren sen aparta ere bazuen), jankideek aukera bakarra zuten: gizonari euren janari-puskaren bat ematea. Hala, gizonak poltsikoan gordetzen zuen jakia, eta errondan jarraitzen zuen gaine-rako koadrilen inguruan, prozedura bera errepikatuz, poltsikoak ondo beteta izan arte. Une hartan, aparteko bazterren batera joaten zen, lortutako guztia jatera.

### EL TIO DEL CLARINETE

Este personaje, de quien no se conoce nombre, procedencia ni residencia, era, sin embargo, una figura habitual en todas las romerías que en las anteiglesias próximas a la Villa se celebraban en aquellos años en torno al cambio de siglo.

Su aspecto era desastrado: pantalones demasiado grandes y con los bajos deshilachados, sucia camisa oculta por una gran chaqueta, gorilla en la cabeza, zapatos rotos con las suelas despegadas, como enseñando el hambre... y, bajo el brazo, su inseparable, viejo y pringoso clarinete.

Caminando despacio y algo encorvado, midiendo perfectamente los tiempos, iba acercándose suavemente a los alegres grupos que, sentados en corro rodeando las viandas, se aprestaban a iniciar la merienda, momento en el que comenzaba a tañer su instrumento. Su triste sonido y su famélico aspecto, unido a su sentido único de la oportunidad, no dejaba a los comensales más opción que ofrecerle alguna porción de sus manjares, que guardaba en sus bolsillos, para continuar su ronda por el resto de las cuadrillas y repetir el procedimiento, hasta tener aquellos bien repletos, momento en que se retiraba a un apartado rincón para dar buena cuenta de todo lo conseguido.

### BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- Emiliano de Arriaga. *Revoladas de un chimbo*. Bilbao, 1920. p. 147-153. or.
- K-Toño Frade Villar. *Suseditos botxeros y bilbainos selebres y chirenes*. Bilbao 2009.



### PERICO, MOKORDO-ZAINDARIA

XIX. mendearen azken laurdeneko umeek izen hori jarri zioten Areatza zaintzeaz arduratzen zen udal guardiari. Garai hartan, Areatza inguru zabal eta hostotsua zen; batean eta bestean zeuden zuhaitzak, zuhaixkak, loredun lorategiak, belar fineko larreak, zumardiak eta Baionako legarrez egindako bidexkak, hiru urmael eta kioskoa aulkiekin.

Perico pertsona ona zen, baina oso jenio bizikoa, eta aiurri txarreko aurpegia zuen, begia beti adi. Areatzan jolasean ibiltzen ziren umeek errespetatu egiten zuten, baina beldurra ere bazioten; izan ere, haren agindupeko lurretan umeek bidegabekeriaren bat egiten zutenean edo esparru hura arriskuan jartzen zutenean, Perico haurren atzetik irteten zen lasterka, edo pintxodun makila botatzen zien hanketara.

Bere beste zereginetako bat San Nikolas elizaren inguruetako komuneko giltza gordetzea zen. Bere uniformean G.M. ("guarda municipal", udal zaindaria) inizialak zeramatzanez, neska-mutikoei umore-sena zorroztu zuten, eta GuardaMocordos ("Mokordo-zaindaria") terminoa sortu zuten Perico izendatzeko, harik eta, azkenean, herritar guztiek deitzen zuten arte ezizen horrekin.

Emiliano de Arriagaren arabera, Pericoren lanpostua berarentzat sortuko zen beren-beregi, zeren eta, hura hil zenean, postua ere desagertu zen.

### PERICO EL GUARDAMOCORDOS

Este era el nombre con el que la chiquillería de la época (último cuarto del siglo XIX) designaba al guardia municipal encargado de vigilar el Arenal, entonces un espacio amplio y frondoso con árboles, arbustos, jardines con flores, praderas de fina hierba, alamedas y sendas con guijo de Bayona, tres estanques y el kiosko con sus sillas.

Buena persona, pero de genio muy vivo, con cara de mal genio y ojo alerta, Perico era respetado y temido por los niños que tenían en el Arenal su campo de juegos, persiguiéndoles a la carrera o lanzándoles su palo de pincho a las piernas siempre que cometían alguna tropelía que pusiera en riesgo sus dominios.

Otra de sus funciones era guardar la llave del retrete que estaba en las cercanías de la Iglesia de San Nicolás. Esta circunstancia, unida al hecho de llevar en su uniforme las iniciales G.M. (guarda municipal), afinó el sentido del humor de la chavalería, que acuñó el término GuardaMocordos para designarle, mote lapidario con el que finalmente todo el pueblo le conocía.

Según Emiliano de Arriaga, su plaza debió de ser creada exclusivamente para él, puesto que una vez fallecido el puesto desapareció.

### BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- *Galeria de Celebridades Vizcaina*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- José de Orueta. *Memorias de un bilbaino*. Bilbao: El Tilo, 1993. pp. 80-81. or.
- Emiliano de Arriaga. *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaino neto. Compilado por un chimbo*. Bilbao: Tip. Amorrortu, 1896. p. 167. or.



### PITOLERDO MAISUA

Laurogeita hamar urte betetzera heldu zen maisu honen ezagunek Miguel Bilbokoa deitzen zioten, eta Goienkaleko etxe zahar baten azken solairuan zuen eskola. Bilbotarren hiru belaunaldi igaro ziren handik; belaunaldi horietako bat, hain zuzen ere, Pacho Gaminderena (Bilbao, 1826-1902), zeinek modu honetan deskribatu baitzuen ikasgela hura: “...umeak bankuetan esertzen ziren, estu-estu, eta azkenak denen bultzadak jasaten zituen eta lurrera erortzen zen sarri askotan. Besoak gurutzatuta izan behar zituzten, ia beti lezioren bat edo otoitzen bat errezitatzen, eta etengabe mugitzen zituzten oinak, gorputzaren zurruntasunari aurre egiteko. Maisuak, kasuaren arabera, leun edo gogor jotzen zituen, bere aulkitik umeen bankuetara heltzen zen kanabera luze batekin”.

Gorputz zimela zuen, aurpegi zimurtsu eta angelutsua, sudur irtena eta aho izugarri handia, ia hortzik gabekoa. Maisuak punta zorrotzeko txano batekin estali ohi zuen burua, eta zalantzarik gabe zigortzen zituen ikasleen diziplina edo ezagutza ezak, Erronda kalerantz ematen zuen balkoian belaunikaraziz edo makilatoarekin joz.

Emiliano de Arriagak dioenez, “Pitolerdo” ezizena Artekalako emakume batekin izan zuen eztabaida batetik zetorkion, José María Jane (1865-1866) alkatearen garaitik, alegia; hain zuzen ere, liskar hartan, emakumeak gutxienez sei aldiz iraindu zuen, *Pitolerdo* deituta. Janék bake-epaile kargua zuen, eta erabaki zuen emakumeak *Pitolisto* deitu beharko ziola, gutxienez sei aldiz. Halaxe egin zen, lekuko eta kuxkuxeroen barre-argaren artean, baina ez zen hura izan On Migueli geratu zitzaion izena, ezpada lehenengoa, demanda aurkeztean izan zuen portaera *lerdoagatik*.

### EL MAESTRO PITOLERDO

Llamado por sus conocidos Miguel el de Bilbao, este maestro que llegó a nonagenario, tenía su escuela en el último piso de una vieja casa de la calle Somera, por donde pasaron tres generaciones de bilbainos, una de ellas la de Pacho Gaminde (Bilbao 1826-1902), quien describió el aula en los siguientes términos: “...los chicos se sentaban en unos bancos, muy apretados, y el último sufría los empujones de todos y caía a menudo al suelo. Debían estar con los brazos cruzados, casi siempre canturreando una lección o una oración, y ellos movían los pies sin parar para desquitarse de la quietud del cuerpo. El maestro les tocaba suave o fuerte, según los casos, con una caña larga que alcanzaba a todos los bancos desde su asiento”.

De cuerpo enjuto, cara rugosa y angulosa, nariz prominente y enorme boca, casi sin dientes, el maestro gustaba cubrir su cabeza con un gorro puntiagudo y no dudaba en castigar las faltas de disciplina o conocimientos de sus alumnos, poniéndoles de rodillas en el balcón que daba a la calle Ronda o golpeándoles con su varita.

El apelativo de “Pitolerdo” le vino, según cuenta Emiliano de Arriaga, de una querrela que en tiempos del Alcalde José María Jane (1865-1866) mantuvo con una mujer de Artrecalle, que le insultó, hasta seis veces, llamándole *Pitolerdo*. Jané, que asumía el cargo de Juez de Paz, sentenció que la demandada había de llamar al demandado *Pitolisto*, al menos otras seis veces. Así se hizo, provocando la hilaridad de testigos y curiosos, pero no fue éste el nombre que le quedó al bueno de Don Miguel, sino el primero, en honor a su *lerdo* comportamiento al formular la demanda.

### BIBLIOGRAFIA • BIBLIOGRAFÍA

- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- Emiliano de Arriaga. *Revoladas de un chimbo*. Bilbao, 1920. pp. 215-221. or.
- José de Orueta. *Memorias de un bilbaino*. Bilbao: El Tilo, 1993. pp. 100-101. or.



### CUCHILLITO ETA NAVAJITA

Bilboko kaleetan, izen horiekin ezagutzen ziren Santa Unzalu Salsusta (Otxandio, 1844 – Bilbao, 1912) eta haren alaba, Gregoria Ortiz de Zarate Unzalu, 1877an jaioakoa Otxandion eta Hiribilduan hildakoa XX. mendearen erdia igaro ostean.

Santa eta Gregoria, “Cuchillito eta Navajita”, Hiribilduko aroztégiz guztietatik ibiltzen ziren zaku huts bat aldean hartuta; bertan sartzen zituzten aroztégietan bildutako txirlorak, eta gero establezimendu publikoetan eta etxe partikularretan saltzen zituzten, sua egiteko material gisa. Zakua bizkarrean hartuta eramaten zuten arrastaka, bata bestearen atzetik ibiltzen, inoiz ez binaka, eta umeen erasoak jasan behar izaten zituzten, haurrak dibertitu egiten baitziren zakuak lurrera botatzean eta emakumeak nola haserretzen ziren ikustean. Garbi eta apain, alabak fardel bat eramaten zuen beti, toalla batekin bertan; izan ere, egunero-egunero, eguerdi inguruan, berdin udan zein neguan, uretan sartzen ziren hanka erdiraino-edo, udaletxea baino apur bat lehenagoko arrapalan.

Julián Alegriaren arabera, edanari ematen zioten, eta, eldarnio etilikoko une horietan, fortuna handi baten oinordeko gisa ikusten zituzten euren buruak, eta uste zuten, modu horretan, harremana izango zutela Hiribilduko aristokraziarik finenarekin.

Ama hil ostean, “Navajitak” bertan behera utzi zuen txirlorabiltzaile lanbidea, eta Menako Babes-etxean sartu zen.

### CUCHILLITO Y NAVAJITA

Eran éstos los nombres por los que en las calles bilbainas se conocía a Santa Unzalu Salsusta (Otxandio 1844 - Bilbao 1912) y su hija, Gregoria Ortiz de Zarate Unzalu, nacida también en Otxandio en el año 1877 y fallecida en la Villa ya pasada la mitad del siglo XX.

Santa y Gregoria, “Cuchillito y Navajita”, se dedicaban a recorrer todas las carpinterías de la Villa con un saco vacío donde iban recogiendo las *chirloras* (virutas de madera), que después vendían a los establecimientos públicos y los domicilios particulares como material para encender el fuego. Arrastraban el saco a las espaldas, caminando siempre una tras otra, nunca emparejadas, y debían sufrir el acoso de los niños, a quienes divertían sus enfados y malhumor cuando les tiraban sus sacos al suelo. Limpias y aseadas, la hija llevaba siempre un envoltorio con una toalla, pues todos los días, tanto en verano como en invierno, alrededor del mediodía, se metían en el agua hasta media pierna en la rampa existente poco antes del Ayuntamiento.

Según Julián Alegria, eran dadas a la bebida y en sus momentos de delirio etílico se veían como futuras herederas de una gran fortuna que les permitiría codearse con la más refinada aristocracia de la Villa.

Tras la muerte de la madre, “Navajita” abandonó el oficio de chirlerera y fue acogida en el Asilo de Mena.

### ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA · FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA

- Julián Alegria. *Humorada chimberiana. Semblanzas de tipos populares*. Bilbao, 1956. pp. 112-119. or.
- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- K-Toño Frade Villar. *Suseditos botxeros y bilbainos seles y chirenes*. Bilbao 2009.
- Julian del Valle. *Mi calle. El Bilbao de principios de siglo visto desde Carnicería Vieja*. Bilbao: El Cofre del Bilbaino, 1968. pp. 175-176 or.
- Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa. Sakramentu-erregistroak. Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia. Registros Sacramentales. [www.aheb-beha.org](http://www.aheb-beha.org)

## CABESITA DE AJO

Francisco Simón Usabal Beraza (Bilbao, 1838-1917)

“Cabesita de ajo” ospetsua Bilboko San Anton elizan bataiatu zuten 1838ko otsailaren 17an, Francisco Simón izenarekin. Haren aita Juan Pablo Usabal Larrea zen, Untzaga (Araba) herriko errementaria, Bilbora emigratutakoa; ama, aldiz, María Manuela Beraza, Begoñakoa.

1845ean, zazpi urterekin, gure protagonista eta haren anaia nagusia, Juan Antonio, Bilboko Misericordia Etxe Santuan hartu zituzten asilatu gisa (garai hartan, Misericordia Etxea gaur egun gure Museoa den eraikinean zegoen), eta 1853. urtean behin betiko bueltatu zen hara bizitzera. Hantxe hazi zen eta hantxe joan zen bere itxura fisiko bereizgarria hartzen, eta, hain zuzen ere, itxura fisikoagatik jarri zioten ezizen ezagun hura: izan ere, gorputz handi eta sendoaren gainean buru txiki-txikia zuen, berakatzat bezalakoa.

Indar fisiko handia zuen baina gaitasun intelektual txikia, eta, ondorioz, zituen bulkaden arabera, pertsona arriskutsua izan zitekeen bere kideentzat; hori dela eta, 1864an Derioko baserri batera bidali zuten, landa-lanak egitera. Hantxe egon zen 1873ra arte. Urte hartan, baretuago zegoela, Babes-etxera itzuli zen, eta, bertan, Ongintzako Zozketa ezaguneko txerri protagonista zaindu, elikatu eta paseatzeaz arduratzeko enkargua eman zitzaion (hain zuzen ere, tradizio horri 1831n eman zitzaion hasiera). Lan hori egiteaz gain, Etxeko ortuan eta okindegian aritzen zen, eta Misericordiako umeez osatutako taldearen burua ere bazen; izan ere, garai hartan, talde hori joaten zen Hiribilduko hileta-segizioen aurrean, gurutzea altxatuta eta kandelak piztuta.

“Cabesita de ajok” sekulako apetitua zuen, bai eta neurrigabeko pasioa ere edariagatik eta zigarroengatik. Bere trebetasunik handiena oilarraren kukurrukua imitatzea zen, eta umeen dibertsiorik handiena hari txistua jotzea zen, buru txiki hura txistu-hotsaren lekurantz txoritxo baten arintasunez nola jiratzen zen ikusteko.

Francisco Usabal 1917ko apirilaren 21ean hil zen, bronkopneumoniak jota. Elexabarriko hilerrian lurperatu zuten, Bilbon.



## CABESITA DE AJO

Francisco Simón Usabal Beraza (Bilbao 1838-1917)

El popular “Cabesita de ajo” fue bautizado en la Iglesia de San Antón de Bilbao el día 17 de febrero de 1838, con el nombre de Francisco Simón, siendo su padre Juan Pablo Usabal Larrea, un herrero alavés del pueblo de Unzá emigrado a Bilbao, y su madre la begoñesa María Manuela Beraza.

En 1845, a la edad de siete años, encontramos a nuestro protagonista y a su hermano mayor Juan Antonio, recogidos como asilados en la Santa Casa de Misericordia de Bilbao, entonces todavía instalada en el edificio que hoy es nuestro Museo, donde ingresaría definitivamente como interno en el año 1853. Allí creció y fue adquiriendo su característico aspecto físico, aquel que le dio el nombre por el que fue popularmente conocido: una cabeza pequeña y diminuta, cual la de un ajo, rematando un cuerpo grande y robusto.

Su fortaleza física unida a su baja capacidad intelectual hacían de él una persona que, dominada por los impulsos, podía resultar peligrosa para sus compañeros, razón por la que en 1864 fue enviado a un caserío de Derio para ocuparse de las labores de campo. Allí permaneció hasta 1873 cuando, ya bastante más apaciguado, retornó al Asilo encargándosele del cuidado, alimentación y paseo del cerdo protagonista de la conocida Rifa benéfica, una tradición iniciada en el año 1831. A esta labor, unía su trabajo en la huerta y panadería de la Casa y su función al frente del grupo formado por los niños de la Misericordia que por aquella época encabezaban, con la cruz alzada y los cirios encendidos, los cortejos fúnebres de la Villa.

“Cabesita de ajo” tenía un apetito voraz y una pasión desmedida por la bebida y los cigarrillos. Su mayor habilidad consistía en la imitación del canto del gallo y la mayor diversión para los niños era silbarle para verle volver su pequeña cabecita con la rapidez de un pajarillo hacia el lugar del silbido.

Francisco Usabal falleció de bronconeumonía el 21 de abril de 1917. Fue enterrado en el cementerio de Elejaberri, Bilbao.

## ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA · FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA

- Emiliano de Arriaga. *Revoladas de un chimbo*. Bilbao, 1920. pp. 135-140. or.
- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- Julián Alegría. *Humorada chimberiana. Semblanzas de tipos populares*. Bilbao, 1956. pp. 14-18. or.
- Cesar Estornes Lasa. Cabecita de ajo y la Santa Casa de Misericordia de Bilbao. <http://memoriasclubdeportivodebilbao.blogspot.com>.
- Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa. Sakramentu-erregistroak. Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia. Registros Sacramentales. [www.aheb-beha.org](http://www.aheb-beha.org).



### CARMEN, GAZTAINA-SALTZAILEA

Carmen Prieto izeneko andre honek, lanbidez gaztaina-saltzailea, edertasun desafiatailea eta sinpatia izugarria zuen, eta Plaza Zaharrean zeukan postua, Pablo Alzolak 1881ean eraikitako Burdinazko Zubiaren eskaileren oinetan; hain zuzen ere, zubi horrek Zazpi Kaleak eta San Frantzisko auzoa (gero eta jendetsuagoa) elkartzen zituen.

Bere auzokide eta arerioa Mari Gaztaina-saltzailea zen, biak ere oso ospetsuak, bakoitza bere espezialitatean: Carmenek gaztaina erreak eskaintzen zituen, eta Mariak gaztaina egosi beroak.

Emakume eder honek kolore askoko zapia eramaten zuen buruan, eta beste zapi bat izaten zuen sorbalden gainean jarrita; gizon atsegin eta ozar batekin zegoen ezkontuta, "urrezko adarrak" ezizenekoa (gizonak berak sortu zuen ezizena). Carmenek maitale bat izan zuen, Félix Picaza, Astoa ezizenekoa; gizon hori Aurrekoetxea kalean emakume bat hiltzeaz akusatu zuten (kasu hura "desagertutako emakumearen krimena" izenarekin ezagutu zen), baina, azkenean, frogarik ez zegoelako absolbitu zuten, Enrique de Ocio abokatu gasteiztarraren defentsari esker.

Indalecio Prietoren arabera, handik urte batzuetara, Carmenek bere maitalea hil zuen Miribillan. Julián Alegríaren datuek diotenez, Carmen 1918an hil zen.

### CARMEN LA CASTAÑERA

De nombre Carmen Prieto y de oficio la venta de castañas, esta mujer de belleza desafiante y enorme simpatía, tenía su puesto en la Plaza Vieja, al pie de las escaleras del Puente de Hierro construido por Pablo Alzola en 1881 y que comunicaba el Casco Viejo con el cada vez más populoso barrio de San Francisco.

Tenía por vecina y rival a Mari la Castañera, repartiéndose entre ambas la fama por sus respectivas especialidades: castañas asadas las de Carmen y cocidas calientes las de Mari.

Tocada con un pañuelo multicolor en la cabeza y otro sobre los hombros, esta bella mujer estaba casada con un hombre complaciente y desenfadado, conocido por el mote de "cuernos de oro", una expresión acuñada por él mismo. Carmen tuvo por amante a Félix Picaza, apodado el Burro, que fue acusado del asesinato de una mujer en la calle Aurrecoetxea (caso conocido como "el crimen de la mujer desaparecida"), resultando finalmente absuelto por falta de pruebas merced a la defensa del abogado vitoriano Enrique de Ocio.

Según Indalecio Prieto, Carmen asesinó a su amante unos años más tarde en Mirivilla. Falleció, según los datos de Julián Alegría, en 1918.

### BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- Indalecio Prieto. *Pasado y futuro de Bilbao*. Barcelona: Planeta, 1991. pp. 22, 41. or.
- Julián Alegría. *Humorada chimberiana. Semblanzas de tipos populares*. Bilbao, 1956. pp. 179-189. or.
- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.



### DON PAQUITO, AGURRA

Izenez soilik ezagutzen dugun gizon hau Bilbon bizi zen, Askao kaleko pisu batean, eta, dirudienez, familia itzaltsu eta dirudun baten semea zen, baina ez zuen herentzia administratzen jakin izan, eta bere azken egunak erabateko pobrezia egoeran bizi izan zituen. Kroniken arabera, Diogenes sindromea zuen, eta, ondorioz, miseria areagotu egin zitzaion, kalean aurkitzen zituen paper, arropa eta traste zahar guztiak etxean pilatzen zituen eta. Indalecio Prietok XIX. mendearen amaieran Plaza Zaharreko merkatutik paseatzen deskribatu zuen, agure argal baten itxuran, larruazal zurbilarekin, sudur gorrixka eta isurkariarekin, oinezkoek zapal dutako aza eta letxuga hostoak lurretik batuz.

Baina sehaska eta leinu onekoa zenez, arropa dotoreekiko eta portaera onekiko gustuari eutsi zion, eta beti janzten zituen trajea eta kapela luzea, eta aterkia ere beti eramaten zuen besapean. Merkatuko joan-etorrietan, zerbitzariari eta andreei erosketak baten laguntzen zien, eta erabateko modu adeitsu eta zeremonia-tsuan agurtzen zuen bidean gurutzatzen zitzaion ezagun oro, kapela erantzita. Ohitura hori barre-algarako arrazoi bihurtu zen, eta, beraz, txantxarako gogoz zeudenek, berarekin topo egite-rakoan, agur egiteko eskatzen zioten, eta, horrelakoetan, Don Paquitok, xalo eta inuzente, kapela kendu eta erreberentzia bat egiten zuen beti.

Egun batetik bestera, Don Paquito Bilboko kaleetatik desagertu zen. Haren absentiagatik arduratuta eta agintariari horren berri emanda, bere etxebizitzako atea bota, eta haren gorpua aurkitu zuten, arratoiek janda.

### DON PAQUITO, EL SALUDO

Este hombre, de quien sólo se conoce su nombre, habitaba en Bilbao, en un piso de la calle Ascao y era, al parecer, hijo de familia ilustre y adinerada, cuya herencia no supo, sin embargo, administrar, viviendo sus últimos días en estado de absoluta indigencia. Su miseria se vio agravada por el síndrome de Diógenes que, si hacemos caso de las crónicas, padecía y que le llevaba acumular en su casa toda suerte de papeles, ropas y cosas viejas que encontraba por las calles. Indalecio Prieto lo describe, paseando por el mercado de la Plaza Vieja a fines del siglo XIX, como un anciano delgado, de tez macilenta, con la nariz colorada y destilante, que iba recogiendo del suelo hojas de col y lechuga pisoteadas por los transeúntes.

De su buena cuna y linaje conservó, sin embargo, su gusto por la ropa elegante y las buenas maneras, vistiendo siempre de traje, tocado con sombrero de copa alta y con su inseparable paraguas bajo el brazo. En su deambular por el mercado, ayudaba a las sirvientas y señoras a recoger la compra y saludaba, de manera extremadamente cortés y ceremoniosa, quitándose su sombrero, a todo conocido que se cruzase en su camino. Esta costumbre terminó por convertirse en motivo de risa, de modo que las gentes con ganas de broma que tropezaban con él le solicitaban el saludo, a lo que Don Paquito, afable e inocente, respondía siempre destacadándose y haciendo una reverencia.

Don Paquito desapareció un día de las calles de Bilbao. Preocupados por su ausencia e informadas las autoridades, derribaron la puerta de su piso y encontraron su cadáver comido por las ratas.

### BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- Julián Alegría. *Humorada chimberiana. Semblanzas de tipos populares*. Bilbao, 1956. pp. 29-44. or.
- K-Toño Frade Villar. *Suseditos botxeros y bilbainos seles y chirenes*. Bilbao 2009. p. 87. or.
- Indalecio Prieto. *Pasado y futuro de Bilbao*. Bilbao: El Sitio, 1980. pp. 24-25. or.



### ARROSARIODUN LODIA

Berrospe abizeneko gizon hau, jatorriz, Durangaldekoa zen, bertan jaio baitzen XIX. mendearen erdialdean. Gizon garaia zen, eta izugarri sendoa eta lodia. Gainera, hankak erdi elbarrituta zituen, eta, beraz, astiro eta nekez ibiltzen zen, bi bastoiren gainean bermatuta. Maiz erortzen zen, baina, altxatzeko laguntza eskaintzen ziotenean, berak uko egiten zion burugogor, eta bastoiekin mehatxu egiten zion laguntza eman nahi zionari, esanez: “Jaungoikoak bota nau, Jaungoikoak altxatuko nau”.

Brusa iluna eramaten zuen beti, buruan onddo-kapela jantzita; eta, itxura xeble hura erremataitzeko, edalontzi-ipurdi lodiko betaurrekotxo biribilak zituen.

Arrosarioak, eskapularioak, dominak eta gurutzeak saltzen zituen kalez kale, eta merkantzia hura lepotik zintzilik eramaten zuen, bularraren gainean ikusgai. Hori horrela, maiz egoten zen Hiribilduko elizen inguruetan.

Julián Alegría pertsonaia honi eskainitako Bilboko inauterietako kopla bat berreskuratu zuen; horren arabera (ez dakigu egia den edo maltzurkeria), brusaren azpian lata bat eramaten zuen, bere txiza bertan jasotzeko, eta gero, lata hartako edukia burla egiten zieten jaurtitzen zien, ez beti punteria onez.

*“El gordo de los rosarios  
es un hombre singular,  
que lleva bajo la blusa,  
una lata para mear.”*

### EL GORDO DE LOS ROSARIOS

Apellidado Berrospe y originario del Duranguesado, donde nació en torno a mediados del siglo XIX, era éste un hombre de gran altura y extraordinariamente robusto y obeso que tenía además las piernas semibaldadas, por lo que caminaba lenta y trabajosamente apoyado en dos bastones. Se caía con frecuencia, pero se negaba tozudamente a admitir ayuda para levantarse, amenazando con sus bastones a quien lo intentara, al tiempo que argumentaba: “Dios me ha tirado, Dios me levantará”.

Vestía siempre un blusón oscuro y tocaba su cabeza con un sombrero bombín, rematando su estrafalario aspecto unas gafillas redondas de grueso culo de vaso.

Se dedicaba a la venta ambulante de rosarios, escapularios, medallas y crucifijos, llevando su mercancía colgada del cuello y expuesta sobre su pecho, encontrándosele habitualmente en los alrededores de las iglesias de la Villa.

Julián Alegría recuperó una copla carnalesca bilbaina dedicada a este personaje, que le atribuye (no sabemos si con verdad o maldad) la costumbre de llevar una lata bajo la blusa para recoger sus aguas menores, que luego vaciaba lanzándola, no siempre con buen tino, contra quienes se burlaran de él.

*El otro día, al mediodía,  
cuando venía yo de comer,  
me manchó toda la ropa  
con el orín que tiraba él.”*

### BIBLIOGRAFIA • BIBLIOGRAFÍA

- Indalecio Prieto. *Pasado y futuro de Bilbao*. Bilbao: El Sitio, 1980. p. 18. or.
- Julián Alegría. *Humorada chimberiana. Semblanzas de tipos populares*. Bilbao, 1956. pp. 82-86. or.
- K-Toño Frade Villar. *Suseditos botxeros y bilbainos seles y chirenes*. Bilbao 2009. pp. 83-84. or.
- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.



### DON PEPITO

Ez dakigu zeintzuk ziren pertsona honen jatorria ez abizenak, eta lanbide edo ofizio jakinik ere ez zuen; dirudienez, bere itxurak eta hitz-jarioak engainatutako eta limurtutako inozoen kontura bizi zen.

Berezko sinpatia, etorri handia eta edukazio zuzeneko gizona izaki, ondo orraztuta eta garbi-garbi paseatzen zuen Hiribilduko kaleetatik, buruan lastozko kapela jantzita, eskuan bastoi fina hartuta, eta botoi-zuloan lore bat zeramala.

Bere ekintza-esparru nagusia Boulevardeko espaloia zen, bai eta XX. mende hasierako Bilboko kafetegi finak ere; adibidez, Boulevard bera edo Carabanchel izenekoa. Bere zaletasunik handienetakoa parean aurkitzen zituen neskatilei hitz politak eta loreak botatzea zen. Denbora batez, Estufa kaleko Jauregiko (garai hartan, Paz Careaga andrearen jabetzakoa) sukaldariaren senargaia izan zen. Egunero, arratsaldean, kalearen erdian jartzen zen, neska-lagunak balkoitik botatzen zion paketearen zain. Emakume potolo hura Tomasa deitzen zen, eta pakete barruan oilasko erre erdia jaurtitzen zion beti, beste zenbait huskeria gozorekin batera.

“Los Cesantes” konpartsak Don Pepitoren trebezien berri eman zuen, inauterietako koplak batzuetan haren izena aipatuta.

*“Nombraremos presidente  
al simpático de Jodra  
(...)  
Ministro de agricultura  
a Chistu y a Barragán,  
y a Don Pepito de hacienda  
porque sabe sablear” (1912)*

### DON PEPITO

Este personaje, de quien no conocemos origen ni apellidos, tampoco poseía oficio o profesión definida, viviendo, al parecer, a costa de los incautos a quienes su aspecto y verborrea conseguían engañar y camelar.

Dotado de simpatía natural, gran facilidad de palabra y una correcta educación, paseaba por las calles de la Villa bien peinado y aseado, con sombrero de paja en la cabeza, fino bastón en la mano y una flor en el ojal.

Su principal campo de actuación era la acera del Boulevard y los refinados cafés que en el Bilbao de principios del siglo XX allí se localizaban, como el propio Boulevard o el Carabanchel. Una de sus mayores aficiones era lanzar piropos y requiebros a las jovencitas que encontraba a su paso. Durante un tiempo fue pretendiente de la cocinera del Palacio de la calle de la Estufa, entonces propiedad de Doña Paz Careaga. Todos los días, al caer la tarde, se colocaba en el centro de la calle esperando el paquete que desde el balcón le tiraba su novia, una oronda mujer llamada Tomasa, y que contenía invariablemente medio pollo asado además de otras ricas minucias.

La comparsa “Los Cesantes” se hizo eco de sus habilidades, mencionándole en algunas de sus coplas carnavaleras.

*“El puente del Arenal  
no pasea un señorito,  
sin que le pegue un sablazo  
el fresco de Don Pepito” (1917)*

### BIBLIOGRAFIA • BIBLIOGRAFÍA

- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- Julián Alegría. *Humorada chimberiana. Semblanzas de tipos populares*. Bilbao, 1956. pp. 297-311. or.
- Julian del Valle. *Mi calle. El Bilbao de principios de siglo visto desde Carnicería Vieja*. Bilbao: El Cofre del Bilbaino, 1968. p. 181-182 or.



## GALIZIARRAK

Galiziatik etorritako ahizpa bi hauek (zehazki Ourensetik etorritakoak, K-Toño Fraderen arabera) kaleko musikarien talderik ospetsuenetakoa osatzen zuten, 1920ko hamarkadako Bilbon.

Isabel eta María deitzen ziren eta biak ziren itsuak jaiotzatik; lehenengoa txikia eta mozkote samarra zen, eta bigarrena garaia eta liraina. Biek jotzen zuten biolina, baina, entzun zituztenen arabera, jo baino gehiago, instrumentua bortizki karrakutzen zuten. Noizean behin, biolin baten ordeztuak jotzen zuten, eta, batzuetan, dirudienek, bikoteari hirugarren kide bat gehitzen zitzaion, triangelua jotzen zuen mutiko itsu bat (jendearen zurrumurruen arabera, Mariaren semea) edo emakume itsu bat, “La Coneja” ezizenekoa, bandurria jotzen zuena.

Kaleko kontzertuei esker lortutako diruaz gain, beste zertxobait irabazten zuten La Casillan, asteburuetako dantzaldietan; han, Bandaren atsedendak animatzeko jotzen zuten, Abandoko elizateko azken udaletxearen eraikineren parean (garai hartan, Umezurten Babes-etxea zen).

Inoiz edo behin, euren ikuskizuna San Frantzisko kaleko Salón Vizcaya aretoan eskaintzeko kontratatu zituzten; bertan, jakina, modu zaratsuan desafinatzen zuten, eta kupleak ere jotzen zituzten, ipurdiak kantuen erritmopean mugitzen zituzten bitartean, ikusleen txantxa eta bozkarioaren erdian.

José Miguel de Azaolak, modu ironikoan, ahizpa hauen musikarako gaitasun faltari egotzen zion sozialismoak Bizkaian izan zuen geldialdia; izan ere, maiatzaren lehen guztietan, egunsentitik eguzkia sartu arte, Internazionalaren euren bertsio partikularra jotzen zuten Hiribilduko kaleetatik, bizilagunen belarriak minduz.

## LAS GALLEGAS

Estas dos hermanas procedentes de Galicia (concretamente de Orense, según K-Toño Frade) constituían uno de los más famosos conjuntos de músicos callejeros del Bilbao de la década de 1920.

Llamadas Isabel y María, y ambas ciegas de nacimiento, era la primera baja y de aspecto rechoncho y alta y espigada la segunda. Tocaban las dos el violín, aunque en opinión de quienes las oyeron, más que tocar, raspaban violentamente el instrumento. Ocasionalmente cambiaban un violín por una guitarra y, de vez en cuando, parece que al dúo se unía un tercer miembro, un muchacho ciego (hijo de María según la rumorología popular) que tocaba el triángulo o una mujer también ciega, apodada “La Coneja”, que tocaba la bandurria.

Al dinero obtenido por sus conciertos callejeros, sumaban el procedente de sus actuaciones en el baile de los fines de semana en La Casilla, donde tocaban, para animar los descansos de la Banda, delante del edificio que albergó al último ayuntamiento de la anteiglesia de Abando y que en esa época cumplía funciones de Asilo de Huérfanos.

Ocasionalmente fueron también contratadas para ofrecer su espectáculo en el Salón Vizcaya de la Calle San Francisco, donde, como no podía ser de otra manera, desafinaban ruidosamente, llegando también a interpretar cuplés mientras meneaban sus traseros al ritmo de las canciones, ante la chufra y regocijo general de los espectadores.

José Miguel de Azaola culpaba, irónicamente, del freno del socialismo en Bizkaia a las nulas condiciones musicales de estas hermanas que, todos los primeros de mayo, desde la aurora hasta el ocaso, se dedicaban a interpretar por los calles de la Villa, hiriendo los oídos del vecindario, su particular versión del himno de la Internacional.

## ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA · FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA

- *Galeria de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- K-Toño Frade. *Ensaladilla bilbaina de tipos populares*. Temas Vizcainos bilduma. Bilbao: CAV, nº 132. zb., pp. 34-35. or.
- José Miguel de Azaola. *Ambulantes y estacionales (y 3)*. Bilbao, Periódico Municipal. 1991ko urtarrila / Enero 1991.
- Alberto López Echevarrieta. *Los cines de Bilbao*. Bilbao: Filmoteca Vasca, 2000. p. 435. or.
- M<sup>a</sup> Teresa Ochoa de Aldaren (Bilbao 1914) ahozko testigantza. Testimonio oral de M<sup>a</sup> Teresa Ochoa de Alda (Bilbao 1914)



### HERNANI KALEKO HERRENA

Corellako (Nafarroa) nekazari baten semea zen gizon hau Bilbora bidali zuten bizitza aurrera atera zezan, eta, horretarako, berakatz-xirikorda batzuk, piperrak eta piperminak ziren bere dote bakarra. Hiribildura heldu zenean, “El Retiro” ostatua izan zen bere lehenengo bizilekua, Bilbo Zaharrean.

Gure pertsonaia gogo biziz aritu zen bere lurraldeko merkantziak saltzen kale eta plazetatik, eta, azkenean, kapital nahikoa eskuratu, lonja bat zabaldu zuen Hernani kalean, eta eraikin bereko lehenengo solairuan jarri zen bizitzen.

Laster egin zen ezagun “Hernani kaleko herrena” izenarekin; izan ere, arazo fisiko hori zeukan, dirudienez, zezen batek harrapatu zuelako gaztetan egin ohi zituen txuliaketa eta zezenketetako batean, garai hartan toreatzailea izan nahi zuen eta.

Negozia ondo zihoanez eta bakarrik eta familiarengandik urrun bizi zenez, emaztea bilatzeari ekin zion, baina, antza denez, hura ez zen lan erraza izan; 3.000 ogerlekoko dotea eskaini behar izan zuen, berarekin ezkonduko zen emakumeren bat ager zedin. Azkenean, zorioneko neska bilbotar bat izan zen aukeraturakoa, eta ezkontza hartatik oinordeko eder bat sortu zen. 1899. urtean, “Los siete niños de Eciija” konpartsak inauterietako koplak bat idatzi zuen, eta, horri esker, aipagai ditugun pertsonak betikotuta geratu ziren.

*“Por fin ya encontró mujer,  
aunque le costó trabajo,  
el cojo la calle Hernani,  
ese que vende los ajos.”*

*El día que se casó  
parecía un señorito,  
pero el adquirir mujer  
le costó tres mil duros*

### EL COJO DE LA CALLE HERNANI

Hijo de un labrador de Corella (Navarra), fue enviado a Bilbao para buscarse la vida, llevando por toda dote unas ristras de ajos, pimientos y guindillas. Llegado a la Villa encontró su primer alojamiento en la posada “El Retiro”, situada en Bilbao La Vieja.

Nuestro personaje se dedicó con ahínco a la venta de las mercancías de su tierra por calles y plazas, consiguiendo hacerse con un capital que le permitió finalmente establecerse en una lonja de la calle Hernani, en cuyo primer piso fijó también su domicilio.

Pronto fue conocido como el Cojo de la calle Hernani, debido al problema físico que padecía y que, al parecer, fue ocasionado por la cogida de un toro en una de las capeas y corridas que en sus años mozos frecuentaba con el sueño de hacerse torero.

La buena marcha del negocio y la soledad en que vivía, lejos de su familia, le animaron a buscar esposa, tarea que no debió resultar sencilla, obligándole a ofrecer una dote de 3000 duros a la mujer que se casara con él. Una agraciada bilbainita fue finalmente la elegida y del matrimonio nació un guapo heredero, pasando todos ellos a la posteridad gracias a la copla carnalera popularizada en el año 1899 por la comparsa “Los siete niños de Eciija”.

*Tiene un hijo guapo,  
Dios se lo bendiga,  
será el heredero  
de toda la familia*

*Si sale como su padre  
y al comercio me lo ponen  
no habrá quien venda en Bilbao  
como él, ajos y melones”*

### BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- Julián Alegría. *Humorada chimberiana. Semblanzas de tipos populares*. Bilbao, 1956. pp. 146-178. or.
- K-Toño Frade Villar. “El Cojo” de la calle Hernani. Bilbao, Periódico Municipal, 2008ko martxo / Marzo 2008.



## LA SAÑUDA

Trinidad Sañudo Leñero, jendearen artean “La Sañuda” izenarekin ezaguna, Begoñan jaio zen 1859an. 18 urte bete eta gutxira, León Zubia Tobalinarekin ezkondu zen, eta, harekin, bost seme-alaba izan zituen, tartean biki bi.

Trini “La Sañuda” oso emakume ezaguna izan zen Hiribilduan. Garaia eta sendoa zen, ahots gogor eta gizon-itxurakoa, eta ohikoa izaten zen Uribitarteko kaletan, non, urte luzez lanean aritu ostean, bakailao-itsasontzien deskargen langileburu izatera heldu baitzen, kontsignatarioen eta langileen artean nagusitasun eta ospe handia lortuta.

Zenbait urtez, bizitza politiko aktiboa izan zuen, Victor Chavarriren<sup>1</sup> alderdi kontserbadorearen ordezkari gisa Bilbo Zaharreko barrutian. Inguru horretan bizi eta bere aginduetara lan egiten zuten emakume askorengan zuen eragina baliatuta, haien senarren botoa lortzen saiatzen zen. Lotura politiko horri dagokionez, Hiribilduan bolo-bolo zebilen txantxa baten arabera, bera kontserbadorea zen, baina bere ondasunen kontserbadorea, zeren, antza denez, aurrezki ederrak lortu zituen bere lanari esker.

Trini “La Sañuda” sukaldari ona ere bazen, eta zeregin horretan aritzen zen, jendaurrean, inguruetakoz elizateetako erromerietan jartzen zuen postuan; han, bakailao-kazola apartak eta Bilboko beste jaki tradizional batzuk ematen zituen.

<sup>1</sup> Victor Chavarri Gorteetako diputatua izan zen 1886tik 1890era, eta senataria 1891tik 1900era.

## LA SAÑUDA

Trinidad Sañudo Leñero, popularmente conocida como “La Sañuda”, nació en Begoña en el año 1859. A poco de cumplir los 18 años se casó con León Zubia Tobalina, con quien tuvo cinco hijos, entre ellos una pareja de gemelas..

Fue Trini “La Sañuda” una mujer muy conocida en la Villa. Alta y corpulenta, de voz recia y aspecto varonil, era una figura habitual en los muelles de Uribitarte, donde, después de largos años de trabajo, había llegado a desempeñar el cargo de capataza de la descarga de los barcos de bacalao, gozando de una reconocida autoridad y prestigio entre consignatarios y trabajadoras.

Durante algunos años, mantuvo también una activa vida política como representante del partido conservador de Victor Chavarri<sup>1</sup> en el distrito de Bilbao la Vieja, donde hacía uso de su influencia entre las muchas mujeres residentes en la zona que trabajaban a sus órdenes para conseguir el voto de sus maridos. Respecto a esta filiación política, corría por la Villa la chufra de que ella era conservadora, pero conservadora de sus caudales, porque al parecer había conseguido hacerse con unos buenos ahorros gracias a su trabajo.

Trini “La Sañuda” era también conocida por sus dotes de cocinera, que ejercía públicamente en el puesto que instalaba en las romerías de las anteiglesias vecinas, donde servía estupendas cazuelas de bacalao y otros guisos tradicionales bilbainos.

<sup>1</sup> Victor Chavarri fue diputado a Cortes, de 1886 a 1890, y senador, de 1891 a 1900.

## ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA · FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA

- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- Indalecio Prieto. *De mi vida*. Mexico: Oasis S.A., 1968. Tomo II. liburukia, pp. 356-357. or.
- K-Toño Frade Villar. *La Sañuda*. Bilbao, Periódico Municipal, 2012ko urria / Octubre 2012.
- Olga Macías Muñoz. *Cargueras y sirgueras de Bilbao*. <http://www.euskonews.com/0269zbk>.
- Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa. Sakramentu-erregistroak. Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia. Registros Sacramentales. [www.aheb-beha.org](http://www.aheb-beha.org).



## JAUREGUICHU

Izen ezezaguneko mañariar hau pertsona ezaguna izan zen XIX. mende amaierako Bilbon. Barrenkale kalean bizi zen, urte batzuk geroago Lucianoren jatetxea egongo zen lekuan.

Kronista batzuen arabera, errentetatik bizi zen maiorazkoa zen, eta, José de Oruetaren arabera, aseguru-agente serio eta jantzia. Kontuak kontu, alde guztietan zegoelako zen bereziki ezaguna, eta, nonahikotasun-dohain horri esker, “Jaungoikoa” ezizena jarri zioten. Esaten zutenez, behin egiaztatu ahal izan zen ordu berean ari zela paseatzen Bilbotik eta Santandertik.

Itxura aparta zuen. Oso garaia eta argala zen, sorbaldearainoko adats ilehoriarekin, bekain eta bibote sarriekin eta bi aldetaranzko bizarrarekin... Kapelu hegal-zabala eramaten zuen buruan, eta txalina belzdun lebita marroia janzten zuen, eskuan aterki izugarri bat hartuta. Aterki horrek bastoi funtzioa ere betetzen zuen, baina, Oruetaren arabera, inoiz ez zuen irekitzen, zeren, aterkia baino gehiago, bidaia-zakua zen, Jaureguichuk bertan eramaten baitzituen bere ekipajea eta gauza guztiak.

Egunero mezatara joaten zen Santiago katedralean, eta, gero, paseoa ibiltzen zen, bakarrik eta astiro, Hiribilduko kaleetatik. Diotenez, maiz joaten zen Pacoren Tertuliara, eta Enrique Salazar Zubia (1866-1922) margolari bilbotarraren modeloa ere izan zen.

## JAUREGUICHU

Originario de Mañaria pero de nombre desconocido, fue éste un personaje popular en el Bilbao de fines del siglo XIX, residente en la calle Barrencalle, donde años más tarde se instalaría el restaurante de Luciano.

Mayorazgo que vivía de sus rentas, según algunos cronistas, agente de seguros serio e instruido, según José de Orueta, lo cierto es que era sobre todo conocido porque se le encontraba por todas partes, haciendo gala de un don de la ubicuidad que le valió el apodo de “Dios”. Tanto es así, que se decía que en una ocasión se comprobó que a la misma hora paseaba por Bilbao y por Santander.

Su aspecto era fantástico. Muy alto y delgado, con melena rubia hasta los hombros, cejas y bigotes poblados y barba en dos ramales... Tocaba su cabeza con un sombrero de ala ancha y vestía levita marrón con chalina negra, portando en su mano un enorme paraguas, que le hacía también las veces de bastón, aunque según Orueta nunca lo abría, porque más que paraguas era un saco de viaje, donde Jaureguichu llevaba todo su equipaje y ajuar.

Oía misa diaria en la catedral de Santiago y luego paseaba, siempre sólo y despacio, por las calles de la Villa. Se cuenta que frecuentaba la Tertulia de Paco y que sirvió como modelo para el pintor bilbaino Enrique Salazar Zubia (1866-1922).

## BIBLIOGRAFIA · BIBLIOGRAFÍA

- *Galería de Celebridades Vizcainas*. Bilbao: Gráficas Celorrio, 1957.
- José de Orueta. *Memorias de un bilbaino*. Bilbao: El Tilo, 1993. pp. 107-108. or.
- K-Toño Frade Villar. *Jaureguichu “Dios”*. Bilbao, Periódico Municipal, 2012ko uztaila / Julio 2012.



### PEPITA, AREATZAKO KIOSKOA

Josefa Lloret y Sals, denek Pepita izenarekin ezagutzen zutena, Valentzian jaio zen 1841ean, baina bi urterekin gure Hiribilduan zegoen bizitzen jada; izan ere, haren aita, José Lloret, kaleetan txufak eta kakahuiteak saltzen zituen, Bilbora etorri zen bizitzera.

Seme-alaba askoko familia hau Tívoli kalean bizi zen, eta Pepita ume-umetan hasi zen lanean. 1868ko irailean, Pablo Aldecoa Mendizabal errementariarekin ezkondu zen, eta Kristo kalean jarri ziren bizitzen. Bikoteak hiru seme-alaba izan zituen, eta euretako bat, bigarrena, sei hilabeterekin hil zen arren, Pepitak bizitza luzea izan zuen, ilobak eta birbilobak ezagutzera heltzeraino.

1887. urtearen inguruan, urte luzez lan eginda lortutako aurrezkiekin eta, beharbada, bere aitaren lanbideak eraginda, Pepitak egunkari, gozoki eta umeentzako litxarrerien salmentarako kioskoa jartzea erabaki zuen. Pepitaren kioskoa Areatzan zegoen, Posta kalearen sarreraren parean, eta famatua zen Bilboko merenge eta pastelik onenak bertan saltzen zirelako. Ezinbesteko erreferentzia izan zen bilbotarren zenbait belaunaldirentzat, eta maiz joaten ziren bertara negozio-gizonak, andreak eta andereñoak, neska-meak eta umezainak... eta, jakina, batez ere, gazteak eta umeak. Euretako bat (Indalecio Prieto) orduantxe heldu zen Bilbora bere jaioterritik, Oviedotik, eta liluraz gogoratzen zituen bertako gozoki handiak: “*karameluzko barrak, dezimetro bateko luzerakoak, mentaz, bergamotaz, malba zuriz eta beste esentzia batzuez egindako zerrendekin espinalean*”.

Udalak Areatzako pasealekuan egindako aldaketen ondorioz, Pepitaren kioskoa lekuz aldatu behar izan zen, hogeita hamasei urtez berak han lan egin ostean. Alternatiba gisa, postu txikiagoa eskaini zioten zubiaren ondoan, baina ez zitzaion gustatu eta bere bizitzako azken urteak izugarri triste eman zituen; gauzak horrela, hainbeste ordu igarotako lekutik banandu ezinda, eta bere senideak saiatu ziren arren Pepita handik urruntzeko, pasealekuaren sarrerako banku batean eserita ematen zituen egunak, usoei jaten emateko garia saltzen.

### PEPITA, KIOSKO DEL ARENAL

Josefa Lloret y Sals, por todos conocida como Pepita, nació en Valencia en el año 1841, pero a la edad de dos años ya residía en nuestra Villa, a donde se había trasladado su padre José Lloret, dedicado a la venta de chufas y cacahuetes por las calles.

Hija de familia numerosa domiciliada en la Calle Tívoli, Pepita comenzó a trabajar desde muy niña. En septiembre de 1868 contrajo matrimonio con Pablo Aldecoa Mendizabal, herrero, instalando su domicilio en la calle del Cristo. La pareja tuvo tres hijos y, aunque una de ellas, la segunda, murió a los seis meses, Pepita disfrutó de una larga vida, llegando a conocer nietos y biznietos.

Hacia 1887, con los ahorros obtenidos en años de trabajo y quizás influida por el oficio de su padre, Pepita decidió instalar un kiosco dedicado a la venta de periódicos, dulces y chucherías para los niños. Situado en el Arenal, frente a la entrada de la calle Correo, el kiosco de Pepita, con fama de vender los mejores merengues y pasteles de Bilbao, fue referencia obligada para varias generaciones de bilbainos, frecuentado por hombres de negocios, señoras y señoritas, criadas y niñas... y, por supuesto y especialmente, jóvenes y niños. Uno de ellos (Indalecio Prieto), entonces recién llegado a Bilbao desde su Oviedo natal, recordaba con arrobo sus caramelones, “*barras de caramelo de un decímetro de longitud, con vetas, en espiral, de menta, bergamota, malvavisco y otras esencias*”.

Las reformas acometidas por el Ayuntamiento en el paseo del Arenal obligaron a la retirada del kiosco de Pepita, el que ella había regentado durante treinta y seis años. La alternativa, un puesto de menor tamaño situado junto al puente, no fue de su agrado y entristeció profundamente los últimos años de su vida, cuando, incapaz de separarse del lugar donde tantas horas había pasado y pese a los esfuerzos de los suyos por alejarla de allí, pasaba los días sentada en un banco a la entrada del paseo vendiendo trigo para dar de comer a las palomas.

### ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA · FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA

- Cesar Estornes. *Doña Pepita, la del Kiosko del Arenal*. <http://memoriasclubdeportivodebilbao.blogspot.com>.
- Indalecio Prieto. *Pasado y futuro de Bilbao*. Bilbao: El Sitio, 1980. p. 50. or.
- Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa. Sakramentu-erregistroak. Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia. Registros Sacramentales [www.aheb-beha.org](http://www.aheb-beha.org).

## LUCIO VICARIO, "BOTINES"

Mena auzoan jaio zen eta Abandoko San Bizente Martiria elizan bataiatu zuten 1881eko abenduaren 13an, guraso ezezaguneko seme gisa. 1888an hartu zuten legitimotzat Babes kalean bizi ziren Juan Vicario eta Biviana Ontaloilla gurasoek.

Bilboko zezentokietako "figura" gisa ezaguna izan aurretik, Indalecio Prietok dioenez, Lucio Vicariok Plaza Zaharreko merkatuko heste-saltzaileen zerbitzuplean egiten zuen lan; hain zuzen ere, Matikoko hiltgetatik asto baten gainean eramaten zituen han hildako abelburuen erraiak.

Bere zaletasuna, baina, zezenak eta zezenketak ziren, eta horretara emana zegoen; bere ospea ez zen hainbeste zezen-hiltzaile gisa lortutakoa, ezpada bufoi-zezenketaren edo zezenketa komikoaren aitzindaria izan zelako. Indartsua eta gihartsua zen, altueraz txikia eta hanka laburrekoa, eta urte eta sebozko traje distiratsu dotorea janzten zuen; era berean, toreatzeko orduan, emakumeen galtzerdi erdi eroriak erabiltzen zituen.

1909an aurkeztu zen Indautxuko zezen-plazan, eta ohikoa izango zen gune horretan, harik eta plaza 1919an itxi zen arte. 1913an, debut arrakastatsua egin zuen Vista Alegreko zezen-plazan, Carlos Garcíaren zekorrek toreatuta. Bere emanaldietan, sarri askotan, airetik hegan amaitzen zuen, eta horrek ikusleen barre-algarak eta bozkarioa sorrazten zituen; hori dela eta, esamolde ezagun batek zioenez, gizon honek hegazkinlaririk ausartenak baino hobeto ezagutzen zuen Bilbo goitik begiratuta. Berak parte hartu behar zuen jaialdietakoren bat bertan behera geratu behar izan zen, Errioxako ardoekiko zuen gehiegizko zaletasunak eragindako mozkor itzelen eraginez.

Jendearen sinpatia eta maitasuna zuen, baina hori ez zen nahikoa izan dirua lortzeko; izan ere, kronistek diotenez, Autonomia kalean abandonatutako lurrin-galdara zahar batean bizi zen, Elgera errearen ondoan. Alabaina, bai izan zen nahikoa memoria kolektiboan betikotuta geratu zedin, eta zenbait koplatox ere eskaini zitzaizkion, bera protagonista nabarmena zela.

*"Esta la afición taurina  
llena de satisfacción  
por contar con un torero  
que es una bendición  
este muchacho es "Botines"  
natural de La Casilla  
que en el día de su debut  
le sacaron en camilla"*

*"Esta la afición taurina  
contra todos los toreros,  
contra empresarios de toros  
al igual que ganaderos.  
(...)  
(...)  
mandaremos a paseo  
a unos cuantos figurines  
y solo contrataremos,  
al simpático Botines"*



## LUCIO VICARIO, "BOTINES"

Nacido en el barrio de Mena y bautizado en la Iglesia de San Vicente Martir de Abando el 13 de diciembre de 1881 como hijo de padres desconocidos, fue legitimado en 1888 por el matrimonio de sus progenitores, Juan Vicario y Biviana Ontaloilla, que tenían su residencia en la C/ Amparo.

Antes de ser conocido como "figura" de los ruedos bilbainos, Lucio Vicario trabajaba, según nos cuenta Indalecio Prieto, al servicio de las vendedoras triperas establecidas en el mercado de la Plaza Vieja, transportando desde el matadero de Matico a lomos de un burro las vísceras de las reses allí sacrificadas.

Su afición eran, sin embargo, los toros y el toreo y a ello se consagró, obteniendo su renombre no tanto

por sus cualidades como matador, sino como por haber sido el precursor del denominado toreo bufo o cómico. Fuerte y musculoso, de pequeña estatura y corto de piernas, se vestía con elegante traje de luces de oro y sebo y para torear usaba medias de mujer, que llevaba siempre caídas.

